

## BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 1607

*AGINDUA, 2012ko martxoaren 9koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena; honen bidez, aldi baterako arautzen da 2012an Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretan argi artifiziala erabiliz txibiak harrapatzea (Loligo spp).*

Egokitzen eta arrazoizkotzen jotzen da arrantza-ustiapena, legez baimendutako baliabide edo aparailuekin egiten denean, eta jardueraren errentagarritasun ekonomikoaren eta itsasoko baliabide eta ekosistemen babes eta kontserbazioaren arteko orekari eutsiko zaiola bermatzen denean.

Itsasertzeko arrantzurako arau zehatz batzuk ezartzeko Nekazaritza eta Arrantza Sailaren 1985eko azaroaren 27ko Aginduak debekatu egiten du argi artifizialez erakarrita molusku zefalopodoak harrapatzea.

Debekua olgetako arrantzaleentzat eta arrantzale profesionalentzat izango da. Hala ere, Kantauriko itsasertzeko beste autonomia-erkidego batzuetako kanpoko uretan eta barruko uretan, itsasontzi jakin batzuei ematen zaie aukera argiarekin erakarrita txibiak harrapatzeko.

Agindu honen helburua hau da: esperimendu gisa argi artifizialez erakarrita txibiak harrapatzeko aukera ematea, jarduera artisau-eran egiten duten itsasontzi txiki jakin batzuei, zenbait baldintza ezarriz; horrela, lehen aipatu den bezala, bateragarritasuna lortu nahi da jardueraren errentagarritasun ekonomikoaren eta itsasoko baliabide eta ekosistemen kontserbazioaren arteko orekaren printzipioan. Halaber, arau horren bidez, dibertsifikazio-aukerak bilatu nahi zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko artisau-flotari, arrantza-jardueran bertan.

Araua esperimentala da, eta urtebeteko epea du; aldi iragankor horretako emaitzak ebaluatu ondoren, ontzat ematen bada, modu iraunkorragoan arautuko da arrantza-mota hori.

Azaldutako guztiagatik, eta arrantzako profesionalen erakundeei kontsulta egin ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretan txibiak harrapatzeko baldintzak urtebetez arautzea da agindu honen xedea (Loligo spp.); profesionalen itsasontzietatik egingo da, txibiak erakartzeko argi artifiziala erabiliz.

##### 2. artikulua.– Modalitatea.

Argi artifizialez erakarrita txibiak harrapatzeko aukera izango duten bakarrak itsasontzi profesionalak izango dira (Loligo spp.): aparailu txikien erroldan egon behar dute, modalitate horretarako egon behar dute prestatuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko barruko uretan arrantzan egiteko baimenaren titular izan behar dute.

### 3. artikulua.– Aparailuak.

1.– Txibiak aborin eta arrain artifizialez harrapatuko dira (*Loligo spp.*).

2.– Eskuzko txirrikak, hidraulikoak eta elektrikoak erabili ahal izango dira.

### 4. artikulua.– Eguneko gehieneko harrapaketak.

Gehienez, egunean 30 kg harrapatuko dira, eskifaia-kide bakoitzeko.

### 5. artikulua.– Argiak erabiltzea.

1.– Bizkarreko argiak bakarrik erabili ahal izango dira, eta debekatuta dago uretan sartzeko argiak erabiltzea.

2.– Ez dira urpeko argizat joko aborin edo arrain argidunak edo fosforeszenteak.

### 6. artikulua.– Merkaturatzea.

Harrapatutakoa merkaturatzeko, arrantzako produktuak lehen aldiz saltzeko eta merkaturatzeko arauak errespetatuko dira. Ondorio horietarako, eta ezartzekoak diren gainerako arauak alde batera utzi gabe, lehen salmenta baimendutako lonja edo establezimenduetan egingo da, eta lehen salmentaren agiria egingo da.

### 7. artikulua.– Neurriak etetea eta aldatzea.

Arrantza eta Akuikulturako zuzendariak aldi baterako eten edo aldatu egin ahal izango ditu agindu honetan araututako neurriak, biologiaren edo teknikaren arloko arrazoiengatik bidezkoa denean.

### 8. artikulua.– Aparailu txikien araudia.

Agindu honetan aurreikusten ez den guztirako, ezartzekoa den gainerako araudia ezarriko da, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko itsasertzean aparailu txikiekin arrantzan egiteko arauak.

## AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ahalmena ematen zaio Arrantza eta Akuikultura zuzendariari agindu honetan ezarritakoa betetzeko behar diren neurriak har ditzan.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaiokete Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; halaber, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko auzietako salan, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko martxoaren 9a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,  
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.